

ETXAHUNEN ARENGARAIKO PRIMAREN KHANTORIA-REN AHAPALDI BERRIAK

1. Sarrera

Amodiozko kantu zoragarrietan zoragarrienetakoa dugu, bakar bat aipatzekotan, “Ahaire zahar huntan” kantua. Kantu honen bila ari den edertzaleak Iparraldeko euskal kantutegirik gehienetan aurkituko du. Hemeretzigarren mendean, J. D. J. Sallaberriren 1870 urteko *Chants populaires du Pays Basque* liburuan ikusten dugu, lehen aldiz. Hogeigarren mendeko Iparraldeko kantutegirik garrantzitsuenetan ere badator; euskal aldizkarietan ere aldaera bat baino gehiago ikus ditzakegu. Aztergai dugun kantua jatorriz Zuberoakoa izan arren, Lapurdira ere zabaldu zen, itxurak direnez. Kantua, sortu zen txokotik bide luze xamarra eginez, Iparraldeko mutur batetik bestera zabaldu zen.

Kantuaren izenari gagozkiola, ia beti “Ahaire zahar huntan” izenburuarekin ezagutzen dugu. Haritschelhar jaunak, ordea, Barkoxeko tradizio sendoan oinarriturik “Arengaraiko primaren khantoria¹” izenburua eman zion bere tesi-lan zoragarrian.

¹ Arrazoi osoz egina da, jakina, aldaketa hau. Baigorriko euskaltzainak Etxahunen beste kanthore bat badu “Gaztalondoko prima” izenburuarekin. Honelaxe dio Haritschelharrek (Euskera, 1969-1970, 690 or. “Selon la opinion assez commune à Barcus, cette poésie serait d’Etchahun. Madame Poussard (91 ans en 1959) petite fille de Jean Topet, le frère d’Etchahun, nous l’a affirmé et bien d’autres soutiennent la même opinion. Cette chanson est désignée à Barcus sus le titre de “Arengaraiko primaren khantoria”. Elle chanterait les malheurs de l’héritière de la maison Arengaraia de Barcus, maison accrochée sur le flanc de la montagne qui est dominée par le sanctuaire de la Madeleine.

Guk lantto honetan 1870ko Sallaberriren ahapaldi argitaragabeak edo zentsuratuak emango ditugu batez ere. Ahapaldi horiezaz gainera, bestalde, interesgarria den beste eredu bat ere eman asmo dugu, Chembra kahierrekoa. Argitara gabeko eredu bat eta osorik argitara ez den Sallaberriren eredu zoragarria emango ditugu, beraz, artikulu honetan. Gainerako eredu argitaratuak ez ditugu lan honetara ekarriko leku faltaz².

2. Kantuaren gertaera eta Etxahun

Kantuaren gertaera, Jean Haritschelharrek argitu zuenez, Atharratzeko Arengarai (edo modu laburtuan *Arañe edo Arrañe*³) auzoko neskatila jabegai edo “prima”-ri zuzendua da. Barkoxeko herri tradizioari jarraiturik, Etxahunen beraren biloba txipia zen Madame Poussard-en arauera, kantuaren egilea Pierre Topet “Etxahun” bera izango zen. Sebastien Eppherre Altzaiko artzainaren arauera ere Barkoxeko bardo handiaren sorkaria izango zen⁴. Bil litezkeen frogen artean, besteak beste direla, Sebastien Eppherre eta Constantinen kantu-ereduetan,

² Aldizkari zein liburuetako aipamena Haritschelharrek berak egiten du, xehero. Hona hemen, beraz, argibideak. Sallaberriren zortzi ahapaldiak ematen ditu Riezuk Flor de canciones populares vascas liburuan. Kantu, kanta, khantore, Baiona 1967, 67-68 or. liburuan Haritschelharren “L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun” lanean (Euskera, XIV-XV, 1969-1970, batez ere 684-695 orrialdeetan) bezala kantu osatu bat ematen da, hau da, kantu desberdinen ahapaldiz osatutako kantu ‘facticio’ edo “osatuago” bat. Aldizkarietako bi eredu interesgarrienak Gure Herria 1925, n^o 11, Constantin medikuaren eredia, eta Gure Herria 1928, n^o 2.

³ Honelaxe dator Constantin medikuaren azken ahapaldia (GH 1928): Arañeko (quartier) sujeta ororen lilia/ Neskatila gaztetan parerik gabia. /Zaldiz igorriren deizut zuri cherkaria/ Artan gañen zira zu eta frutia. “Arañe” hortaz Atharretzeko auzoa dugu. KKKko eredian, oster, Arrañe dugu (Arrañeko sujeta). Aldaera guztiak, nola ez, Arengarai toponimoaren laburdurak dira.

⁴ Sallaberrik, ordea, ez dio Etxahun zenik biltzailea, nahiz eta Etxahuni beste kantu biren (“Ofizialenak” eta “Belhaudiko bortian” egiletza egotzi

Barkoxe herriaren aipamena ere bada⁵. Aipamen hau frogatxitzat hartu badaiteke ere, ez da, Haritschelharrek berak argitzen duenez, erabatekoa⁶.

Kantaren autoretza edo egiletza Etxahuni egotzi izan zaio. Uste horren froga edo irozgarriak bat baino gehiago dira. Barkoxeko herri-tradizioa, batetik, garai bateko kantarien estea. (Hemen, jakina, goraxeago aipatu dugun Sebastien Eppherre ere badugu, nahiz ez den barkoxtarra.) Frogarik sendo eta irmoena, arrazoibiderik indartsuena, ordea, Haritschelharrek ere baieztatzen duenez, kantaren estiloan berean aurki daiteke, gure ustez.

Hona hitz bitan gure frogabidearen argudioetako batzuk. Kanta Etxahunen garaikoa da; kantaren estiloak ere, apur bat zehatzago esanez, XVIII mendeko herri lirikakoa izateaz gainera badu Etxahunen bihotz-oldarra. Baliteke, beste alde batetik, kanta-paper batean kantua zabaldua izana. Haritschelharren zein *Kanta Kantu Kbantore* liburuko eredu osatuek hasera-bukaera ahapaldiak dituzte. Hasera-bukaera hauek kanta-papere-tako eitea dute hasera-ahapaldi bat eta bukaera-ahapaldi bat dutela. Gure ustean behintzat bukaera-ahapaldiak Etxahuen estiloko silu edo zigilu nabarmenagoa du. Autore ezagunak sortutako kanta asko tradizionaldu egin dira, denok dakigunez. Etxahunen amodiozko kantu asko herriak beretu eta aldaeretan bizi dira. “Ahaire zahar huntan” honetan ere beste herri-kanta askotan dauden hainbat esaldi egin eta ideia ikus ditza-kegu. Etxahunena berarena izan litekeen “Filipiñekuak” kantuan *Xurit eztakidan gazterik bilhua* dator 7. ahapaldian,

⁵ Constantinen azken ahapaldia hauxe da: Arañeko sujeta ororen lilia./ Neskatila gartzetan parerik gabia. Zaldiz igorriren deizut zuri cherkaria/ Artan gañen jinen zira zu eta frutia. Haritschelharren 15 ahapaldiak lehen erdian berdina du baina azkena desberdin: Arañeko süjeta, ororen lilia./ Neskatila gartzetan parerik gabia; Hanitx plazer hatü düzü (düzün) haitatü lekhia/ Barkoxen igaiteko zure zahartzia.

⁶ Hemen meheago irun daiteke. Argitasun horiek n nahi dituenak jo beza aipatu dugun Haritschelharren tesi-lanera.

“Mundian den ederrena” kantuan ere berdin-berdin dator. Gure honetan antzerako zerbait ikusten dugu: *gazterik eztakizün xurrit bilhua*.

Gainerako herri-lirikako aipamen gehiago ere aurki daitezke kantu honetan. Ahapaldi oso bat, esaterako, beste kantu batzuetan ere aurki daiteke. Hartschelharrek eskaintzen digun 13 ahapaldiko segmentu osoak aurkitzen ditugu “Xarmagarria zira eder eta gazte” kantuan. Bistakoa den bezala, herriak beretu duen kanta honetan herri-herrikoak diren beste ahapaldi batzuk txertatuz osatuko ziren guk ezagutzen ditugun aldaerak.

3. **Chambra kahierreko ereduak**

Hona aldatuko dugun ereduak ez du ezagutzen diren eredu argitaratuetatik ahapaldi berririk. Ahapaldi barruan, ordea, bada dira aldaera txikitxoak. Gure puntu honetan grafia eta puntua-zio gaurkotua erantsiko dizkiogu. Testua hobeto ulertzeko neska-mutilen arteko elkarrizketa ere markatuko dugu.

1

Ahaire zahar huntan bi breset berririk
alagrantiareki khantatü nahi tit.
Bihotza libratüririk phena orotarik,
Desir nian maitia beität gogatüririk.

2

Ihourk etzian erranen ezpeitzian üdüri,
gogatüren niala maitia jagoiti.
Mintzo nintzeiron bethi ahalaz uneski,
Ene erranen gati hura ezin konberti.

3

–Zazpi urthe badizü, ene khariua,
zütan ezarri niala ene amorioua.
Gerozti nabilazü tristerik gogua,
beldürrez, ene maitia, zu etzitzadan goga.

4

–Zazpi urthez zitzait onduan ebili,
ene tronpatü nahiz malezian bethi.
Orai egiten düzü aisa nitzaz erri,
bena abisa zite Jinko Jaunak püni.

5

–Zelüko Jinko Jaunak badü pietate,
bere denbora beitü errota egile.
Ürgüillütsien bortxaz konberti erazle
Feit horrez ene maitia zü ere orhit zite.

6

–Ühaña arrantzale arrain hurian deno,
neskatilak ere trende amoros direno.
Muthikuak ordian haier duloruski mintzo,
deseña konpli eta haientzat adio.

7

–Ihizlariak ez li[r]lo hatsaman erbia,
thira ezpalizo lehenik kolpia.
Gisa berian düzü ene zorthia,
nik ere hola nizün gogatü, maitia.

8

Zaldi xuri bat badit zure zerbütüko,
zük plazer düzün hartan juraiteko.
Erraiten ahal dezü etxekuer adio,
benturaz eztütüzü ikhusiren haboro.

Zuberoako dardarkariak gaur eguneko grafiara ekarri ditugu. Kontu honetan ere “L’oeuvre poétique de Pierre Topet -Etchahun” laneko irizpideak izan ditugu oinarritzat.

4. Chambrakahierreko ereduaren iruzkina

Puntu honetan Chambrako ereduak jatorrizko grafian jarriko dugu eta mami zein azalaren iruzkin laburra egingo dugu. Konparagai erabiliko ditugun gainerako bi ereduak Haritschelhar (hemendik aurrera Hts.) eta KKK liburukoak izango dira.

1

Ahayre cahar hountan bi breset beririq
 Alagrançiareky khantatu nahitit
 bihoxa Libraturiq Phena orotariq
 Dezir nian maitia beitut Gogaturiq

Lehen ahapaldi hau sarrerakoa dugu. “Ahaire zahar huntan bi breset berririk” hasiera klitxetu edo “ihartu” bat dugu. Etxahunek badu beste sarrera bat antzekoa: *ahaide delezius huntan bi breset gei tit khantatü*. “Ahaire/ahaide” hitzak doinua adierazi nahi du. *Bi breset/breset khantatü* egitura egina dugu, batez ere Etxahunen khantoretan aukitzen duguna. Gurean *breset* metatesisduna agertzen da, besteetan *berset*. Ezagutzen ditugun ereduetatik desberdintzen duen *maitia* hitza ikusten dugu geure ereduaren eta KKKkoan.

2

Yhourq exian eranen ezpeiçian udury
 Gogaturen niala maitia jagoity
 Minxo ninxeiron⁷ bethy ahalas ounesky
 Ene eranen Gaty houra eçin komberty

Ezagutzen ditugun ereduaren berdin-berdina da. Zuberoako euskaran neskatila maitia “gogatü” egiten da, hau da, “lortu”.

⁷ Hitzik zailtxoena transkribatzen hau da. Garbi dago ninxeir- horretaraino. Transkribatzeko orduan eduki dudana beste aukera bat bigarren pertsonakoa izan da: ninxeiçun.

Aditz beraren sinonimoa “enetu” izan daiteke, baldin lehenengo pertsonan bada. Zuberoako euskeraren (batez ere Basabürüko euskararen) ezaugarriak argi ikusten dira kontsonantismoan. Dardarkari indartsuak ez dira ahoskatzen: *eramen*, eta abar. Gure ahapaldi hau eredu osoagoa. Delako *exian* hau osoagoa da “etzin” baino.

3

Saspi ourthe badiçu ene Kharioua
 çutan esariniala ene Amorioua
 Gerosty nabilaçu Tristeriq Gogoua
 beldures ene maitia çu exixadan Goga

Gure eredian “ibili” aditza jokaturik aurkitzen dugu *nabilazü*, beste ereduetan “egon” *nindiagozün*. Hurrengo ahapaldian datorren ebili (*zazpi ourthez zitzait onduan ebili*) aditza-rekin harirago dator, inolako dudarik gabe.

Hemen, bestalde, berriro “gogatu” aditza aurkitzen dugu. KKK liburuko eredian: *beldürrez etzintzadan zü enet, gaixua*. Ahapaldi hau seigarrena da KKKan eta zazpigarrena Hts-en eredian. Gure eredu honetan, bestalde, oskidetasuna hautsi egiten da azken *goga* horrekin.

4

Saspi Ourthez çicait ondouan ebili
 Ene Trompatu nahis maleçian bethy
 Oray egiten duçu ayza nisas ery
 Bena abiza cite Jinco Jenaq puny

Ahapaldi honek ere baditu ñabardura eta desberdintasun markagarriak. KKK liburuan eta Haritschelharrenean zitzaitzat ikusten dugu. Gurean haplologia argi batez *zitzait*. Haritschelharrenean *aisa eni erri* dator. KKK-ko alean *aisa nitaz*

erri. Gure kasuan, Zuberoako araei jarraiki, *aisa nitzaz erri* da. Era berean, gure erduan beste aldaeraxo bat ere badator azkenean. KKK eta Hts-enean *begieizü/Begiraizü* dira, gurean *bona abisa zite*.

5

Celuco Jingo Jeunaq badu Pietate
bere denbora beytu erota egile
Urguiluxien bo[r]tchas Combertierasle
Feit hores ene maitia çuere Orhitsite

Hemen ere ñabardura txikiak doaz eredu batetik bestera. Gure erduan *bere denbora beitiü er[r]lota egile* dugu. KKK-an *bere denboran beita errota-egile* eta Hts *bere denbora dizü errota egile*. Esan dezagun *er(r)ota* hitza hemen “gurpila” dela. Jainkoa gurpilgina dela esatea fortunaren gurpilak bira asko egiten dituela adierazten du⁸.

6

Uhagña arançale arain hourian deno
Neskatilaq ere trende amoros direno
Mouthikouaq ordian hayer Dulorousky⁹ minso¹⁰
Desegña Compli eta hayensat adio

⁸ Honelaxe azaltzen du Haritschelharrek (beti ere iturri berean, Euskera 1969-1970koan): errota egile: litt.: il a son temps faiseur de roues. Très curieuse métaphore que Sallaberry traduit par: son temps s'écoule à fabriquer des roues. Et il ajoute en note: allusion aux roues de la fortune. En fait, cette allusion à la fortune changeante, inconstante, symbolisée par la roue ecliptique les deux vers suivants.

Herri metafora da Graziano Anduagaren liburuan agertzen denez Jaungoikoa eskilara egilea dela, goikoak behean jartzen dituelakoa eta behekoak goian, denboraren joanean. Gure irudi hau landu edo kultuagoa dirudi.

⁹ Nola ote da Do-/Du- eskuidatzian bigarrenaren aldeko frogak nabariagoak dira.

¹⁰ Ez da garbiegi ikusten minrso edo horrelako zer bait transkribitu dut lehenengo aldiz.

Kopla zaharren teknikako kopla. *Uhaiña* ur-txakurra dugu “nutria”, arrainak arrantzatzen dituen ihizi abila. KKKko eredu-
duan berdin dator *arrantzale*, Hts-en *ibizlari*. Gure eredia
desberdin da beste kontu batzuetan. Hona konparagai bi ere-
duak KKK: *Muthilak ere goxo amoros direno* eta Hts *Mutilak
ere trende amoros direno*. Gure eredu-*muthilak* esan beha-
rrean *neskatilak* dio. Hurrengo hitza, (oposizioz, jakina),
Muthikuak izango da. Bada, azkenik, beste hitz desberdin bat
desira/desirra hitzak agertzen dira KKK eta Hts eredu-
etan, gu-
rean, ordea, *deseña*. Hitz zuberotarra dugu *deseña* eta “as-
moa”, “guraria” esan nahi du.

7

Yhislariaq elio haxaman Erbia
Thira ezpaliso Leheniq kolpia
Giza berian duçu ene sorthia
niq ere hola nisun Gogatu maitia

Ibizlariak elio batsaman erbia zer da? *Elio* delakoa *ez liri*
dugu, hots, “ez lezake”. Ehiztariak ez lezake hartu edo ehizatu
erbia tirorik tiratu gabe. Gure ereduko *elio* ikusten dugu KKK-
ko eredu-*espalizo* aditza ere eredu berean. Lehen zatia
oso antzerakoa da KKKko ereduarekin. Bigarren zatia, ordea,
Hts-ren ereduarekin.

8

Saldy Chouribat badit Çoure cerbutchuko
Suc Plazer ducun hartan jouraiteko
Eraiten ahal deçu Etchecou[e]r adio
Benturas eztutucu ikhousiren haboro

Ahapaldi hau beste kantu batzuetan ere agertzen da. “Ho-
deiak ilun ziren joan den gauean” kantan ere agertzen zen.

Ahapaldi zoragarri hau beste kantu batzuetako azkenaldean jartzeak halako urrezko bukaera bat ematen dio kantuari.

KKKko eredia eta Hts-ena oso berdinak dira. Adizkietan bada ñabardura batean *düzü* dena bestean *dükezu* da. Gurea-ekin erkatuz, ordea, badira hainbat ñabardura txiki. Aipa dezagun bakarren bat: *Aita eta amari* dena KKKan eta Hts-ean, gurean *etxequer* dugu.

5. Sallaberriren eredia oso-osorik bi ahapaldi gehiago dituela

J. D. J. Sallaberrik zenbakitu gabeko zortzi ahapaldi dakartza bere liburuan. Zazpigarren eta zortzigarren ahapaldien artean eten puntuez hutsune bat dakar. Hutsune hori lau marrako eten puntuez datorrenez gero, badirudi ahapaldi bat isildu edo ezkutatu duela. Honelaxe dio Haritschelharrek gorago aipatu dugun lanean (“L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun”, *Euskeria*, 1969-1970, 684 or.):

Cette chanson a été publiée pour la première fois par J. D. J. Sallaberry en 1870 (Cf. *Chants populaires du Pays Basque*, 2e édition, 1930, p. 234). Elle comprenait huit strophes, mais des points de suspension en place d’une strophe montrent que J. D. J. Sallaberry a exercé sa censure et que la chanson est plus longue.

Salaberriren liburuan eten puntuek kantua luzeagoa dela adierazi nahi dute. Bestela esan, puntu suspentsiboak kantaren azkenean edo kantaren beste bi ahapaldiren artean, batez ere zentsura adierazteko dira, itxurak direnez¹¹. Gure ustez, ordea,

¹¹ Batzuetan besterik gabe kanta ez dela bukatzen adierazteko da, gure ustean. Edo aldaera asko izan ahal dituela adierazteko. Halaxe uste dugu “Truten ari nuzu” kantarekin edo “Chorittua, nurat hua?” edo “Amadioaren phena” edo “Goizetan jelkhitzen da”. Beste batzuetan izan liteke zentsuratua, halaxe izan liteke “Ollanda gazte” edo “Ostiraletan duzu”.

Sallaberriren liburuan agertzen diren eten puntuek izan ditza-kete funtzio gehiago ere¹².

Sallaberrik berak argitaratzeko prestatua zuen eskuidat-zian bi ahapaldi berri datoz, gure atal honetan 8 eta 9 zen-bakiak eman dizkiogunak. Bi ahapaldi hauek ez ditugu inongo lekutan ikusi argitaraturik. Gaurko begietatik ikusirik zentsura jartze hori ulergaitz egiten zaigu. Zergatik dira bi ahapaldiok zentsuragarri? Behin ahapaldi ezkutatuak ezagu-tu ondoren zail egiten zaigu ulertzea. Herri-metafora bidez-ko bi ahapaldi dira eskuidatzian datozenak. Bestela esan, amodio baten fruita den umea aipatzen dute metafora bi-dez. Bi ahapaldi hauek duten tonua kontuan harturik, ez ote da froga handiago bat khantorea Etxahunena dela baieztatzeko? Guk halaxe uste dugu. Jarri dezagun, azkenik, ha-mar ahapaldiak eskuidatzian agertzen diren bezalaxe, inon-go aldaketarik gabe:

1

Ahaire zahar huntan bi berset berririk
Alagrantiareki khantatü nahi tit;
Bihotza libratürrik phena orotarik,
Desir nian maitia beitüt gogatürrik.

2

Enükian sinhetsi, ezpeitzin üdüri,
Gogatüren niala maitia jagoiti;
Mintzatzen nintzirozün ahalaz eijerki;
Ene errana gatik hura ezin kumberti.

¹² Puntu suspentsiboen kasua konplexuago ere izan daiteke., arrazoi nagusia Haritschelharrek aipatu duena bada ere. Guk esku artean dugun eskuidat-zian zazpigarren eta bederatzigarren ahapaldien ondoan lerro bakarreko eten puntuak jartzen ditu eta ez dakigu zertarako diren eten puntu horiek.

3

–Zazpi urthe badizü, ene khariua,
Zütan ezarri nila ene amodiua,
Gerozti nabilazü tristerik gogua,
Beldürrez etzitzadan zü goga, gaichua!

4

–Zazpi urthez zitzaitzat ebili ondoti,
Ene trompatü nahiz malezian bethi.
Orai egina gatik aisa eni erri,
Begiraizü Jinkuak zü etzitzan püni.

5

–Gure¹³ Jinko Jaonak badü pietate,
Bere dembora dizü errota egile;
Ürgülütsiaren bortchaz ümilierazle¹⁴:
Feit horrez orhit zite, maitia, zü ere.

6

Ühaiña ihizlari arraiñ hurin deno:
Gizon gaztiak tendre amoros direno,
Neskatiler ordian doloruski mintzo:
Desirra kumplit eta haientzat adio.

7

–Pikantki mintzo zira gizoner, maitia,
Ez, sunja bazeneza düzün estatia.
Ezpaldimbanü maite fidelitatia,
Elitzeikezü kumbeni hola mintzatzia.

¹³ Beste aukera bat bezala Gure posesiboaren gainean Zelüko idatzi du.

¹⁴ Ez dago oso garbi hasierako ümi- delakoa, hots, lehen u– horren gainean bi puntuak jarri dituela, gaineko lerroko –g– kontsonantearen beheak ez baitu uzten argi...

8

Antchütto bat badizüt bere achurireki,
 Gure olhan sartzeko desir handireki.
 Erbajiren saria eztizü¹⁵ bereki,
 Gure olhan sartzeko eztizü zereki.

9

–Zazpi urthe badizü erran zeneitala
 Zure olha berrian sarthüren nintzala.
 Erbajiren sariaz etzinen mentzitü,
 Behar nianez ere etzeneitan aiphatü.

10

–Zaldi churi bat badit zure zerbütchüko,
 Zük plazer düzünian biak juaiteko.
 Etchekuer errezü dolorez adio,
 Ützüliren etzira mentüraz haboro.

Kantuko gainerako ahapaldi guzti-guztiak Sallaberriren liburuan bezalaxe daude transkribaturik. Bosgarren ahapaldian, oster, eskuidatzian aukera bi ematen ditu: *Gure Jinko Jaonak badu pietate/ Zelüko Jinko Jaonak badü pietate*.

Gaur eguneko grafiara ekarriko bagenu amar ahapaldiko kantu honi aldaketa gutxi egin beharko genizkio. Kantuko *churi* “xuri”, *etchekuer* “etxekuer”, *antchütto* “antxütto”, eta abar.

6. Ahapaldi berrien iruzkin eta zertzeladak

Bi ahapaldi berriek zer esan nahi ote dute? Egin dezagun ulertze saiakera bat. Badirudi mutilak neskatile gazte bati ume

¹⁵ Lehen idatzialdian badirudi baiezko forman idatzi duela, hau da, badizu. Gero, zuzenketa eginez, kontrara jarri du: eztizü.

bat eragin diola. Zortzigarren ahapaldia, beraz, galaiari dago-kio, mutil gazteari. Horretara dator, beraz, *Antchütto bat ba-dizü bere achurireki*. Antxua “ardi gaztea” da, gazteegia agian. Ardi gazte hau ttikigarriz emana da *antchüttoa*, hots, antxüt-toa. Ardi gazte honek egin duen ume jaio berria, ordea, *axuria* da. *Axuria*, ezinbestean, *antxua* baino gazteagoa da, hau gaz-tea delako eta hura, ordea, umea.

Artzain munduko metaforabideari jarraiturik iruzkindu deza-gun *Gure olban sartzeko desir handireki*. Emakume gazteak artzainaren etxean (edo metaforikoko ardi-txabolan) sartzeko gogo handia du. *Olba* Zuberoako euskaran bortuetako “ardi-txabola” dugu. Etxahunek berak badu khantore bat baino gehiago bortuetako olhen gainean.

Erbajiren saria eztizü bereki zailtxo egiten zaigu ulertzea. Gure ustez, frantsesezko “herbage” dugu Zuberoako “erbajia”, hau da, belarra jateko *albagia* edo “bazkalekua”. Belarra jate-ko pentzearen saria edo dirua nonbait ordaindu beharra egon-go zen. Artzainak ez du onartzen haurdun utzi duen emaku-me bere umearekin joan dadin bere etxera bizitzera. Horrexe-gatik uxatzen du *gure olban sartzeko eztizü zereki* esanez. Hau da, bere artegian edo olhan sartzeko ez duela zerekin, sor eta gogor erantzunik.

Bederatzigarren ahapaldia ulergarriagoa da, behin irudiak onartuz geroz. Mutilak *erbaji(a)ren saria* ez duela esatean ba-liteke, gure ustean behintzat, doteaz mintzatzea. Neskak umea egin baino lehen ez ziola holakorik aipatu erantzuten dio.

Antxuaren metaforabidea edo sinbolismoa ez da askorik ematen XVIII lirikan. Hegaztien (uso luma gris, usaphal, es-parber, eta abar) eta lilien sinboloak erabiliagoak dira. Inoiz edo behin, ordea, artzain-munduko sinboloak agertzen zaiz-kigu. Eman dezagun, kasurako, Aita Donostiak bildu eta argi-tara zuen “Urso xuri” (GH, 1928, VIII, 6) kantuko azken bi ahapaldiak:

Artzain gaztia bortu goretan
 oyuz ari da doloretan.
 Antsu bat diala erosi
 bera dereyela ebatsi.
 –Ene antsu, antsu karioa,
 biotzez ungi maitatüa.
 Nik ezitüt ez kitaturen
 lehen dit bizia galdüren¹⁶.

Ahapaldi bi hauetako lehenean artzain bat galdu duen ar-
 kazte edo antxuaren gainean doloretan dagoela dio. Artzain
 hori “bortü goretakoa” da, hots, Pirinioetakoa. Bigarren ahapal-
 dian artzaina bere maiteari, antxüari, zuzentzen zaio amodio fi-
 dela, ezin fidelagoa adierazteko.

7. Salaberriren marginaliako lau ahapaldiak

Goragoko puntuan jarri digutun bi ahapaldiez gainera,
 badago besterik ere eskuidatzian. Marginalia bezala, letra
 txikiago batez goragoko puntuan jarritako ahapaldiez gaine-
 ra, beste ahapaldi batzuk ere agertzen dira. Eskuidatzia na-
 gusiki transkribatu duen esku berak idatziak ote dira? Guk
 ezetz uste dugu, dudatzaka. Hona gehiagokorik gabe aha-
 paldi berriak:

¹⁶ Hemen, gure ustez, ez dago erabat ondo transkribaturik. Zubeoako euskararen ezaugarri guztiak ez dagoz erabat markaturik. Zentzuari ga-
 gozkiola, aldaketa txiki bat egin dugu. Bigarren ahapaldian ezitüt jarri
 beharrean ezitüt jarri dugu, hau da, euskara estantarreko “ez zaitut”. Ho-
 nelako zerbait izan behar luke: Artzain gaztia bortü goretan/ oihüz ari da
 doloretan. Antxü bat diala erosi, bera dereiela ebatsi. 2-Ene antxu, antxu
 karioa,/ bihotzez ungi maitatüa. Nik ez zitüt ez kitatüren/ lehen dit bizia
 galdüren.

I

Ihizlariak ezliro atzaman erbia¹⁷
Ezpadiro thirutzen lehenik kolpia
Gisa berian düzü oi! ene khuntia
Hala gogatü dizüt nik ene maitia.

II

Juaiten zirenian maitiaz amoros
Bere florian bada ez izan lanjeros,
Neskatilak beitira ordian amoros
Aisa dira gogatzen ordian inganioz.

III

Persuna bat denian plazerrak galdürik
Aramarkable düzü inkietatürik;
Othoi ez egin eni haboro khasürik,
Bestela eztükezü ni bezain tristerik.

IV

Ene charmagarria, etzitiala changrina,
Laster izanen düzü gure jüntatzia;
Zaldiz igorriko deizüt zure cherkharia
Hartan gañen jinen ziraie zü eta züre frütia.

Kantaren transkripzio nagusiaren ezkerraldean agertzen diren lau ahapaldiak ez dira guztiz berriak. Ez dira, bestela, esan, aurreko puntuko zortzi eta bederatzigarren ahapaldiak bezalakoak. Lau ahapaldi hauen aldaerak ezagutzen ditugu eredu argitaratuetan. Lehena (I), esaterako, KKKko 12.a eta Hts 6; bigarrena (II) KKKko 3.a eta Hts 4^a; hirugarrena KKKko 11 eta Hts 12; laugarrena KKKko 13 eta Hts 13. Ahapaldi hauen berritasuna beste era batekoa da, beraz, aldaerei dagokiena.

¹⁷ Lehen idazkeran erbiak jarri duela dirudi. Geroagoko zuzenketak erbia garbi markatzen du.

8. Marginaliako lau ahapaldien iruzkina.

Egin dezagun lehen-lehenik ohar bat. Aurreko puntura eka-
rri ditugun lau ahapaldiak ez direla kantu osoan edozein orde-
natan jartzen. Non jarri behar diren markatzeko marra beltz
batez markatzen da lekua. Guk uste dugu marra beltza leku
zehatza markatzeko dela. Puntu honetan aldaera ezagunenekin
iraizeko iruzkin bat egingo dugu.

Lehen ahapaldia Salaberriren hirugarren ahapaldiaren on-
doan dago. Badirudi beste aldaera batean hirugarren ahapaldia
ordezkatzten duela. Hona hemen:

Hts-6: –Ihizlariak eztiü atzaman erbia/ Thiatü gabetarik
lehenik kolpia/ Gisa berian düzü oi ene zorthia,/ Nik ere hala
dizüt gogatü maitia.

KKK-12: Ihizlariak elio atzaman erbia, Ezpalezo lehenik hari
tira kolpia;/ Enetzat agitü da orai ber khuntia,/ Holaz zütüt go-
gatü, oi ene maitia.

Ahapaldi honetan ehiztariaren pare dela dio pertsona maite-
mindua. Erbirik lortuko bada, tiroa tiratu behar. Gure ahapaldi-
ko *ezliro* delakoak “ez lezake” adierazten du **iron* aditzaren
forma jokatua da. Era berean *ezpadiro* horrek “ez badezake”
izan behar luke, nahiz eta zentzuaren aldetik hobeki etorri
KKK aldaerako *ezpalezo* adizkia.

Bigarren ahapaldia Salaberriren laugarrenaren aldamenean
dago. Bigarren ahapaldia ulertzeko bidea beste aldaera batzuk
ematen digute.

Hts 4 eta KKK 3-Maitiaren gana zuazanin amorioz,/ Bere
florian bada ez izan lanjerus,/ Neskatilak beitira ordian han-
dius,/ Bena gogutzen dira lüzin inganioz.

Gure ahapaldiko lehen *amoros* delakoa “amodioz” izan
behar luke. Hau da maitearengana bazoaz “amodioarekin”. Bi-
garren *amoros*, ordea, ondo legoke. Amorosa “maitemindua”
da, eta hala da ahapaldi honetan ere..

Hirugarren ahapaldi hau Salaberriren bostgarrenaren ondoan dago. Hirugarren ahapaldia ere oso berdintsu agertzen da eredu ezagunetan:

Hts 12-*Persuna bat denian plazeraki galdürik/ Erremarkaule düzü inkietatürik;/ Ene erranari othoi ez egin kasurik,/ Bestela eztükezú ni baizik galdürik.*

KKK 11-*Persuna bat denan plazerak galdürik,/ Erremarkable düzü inkietatürik;/ Ene erran boier, othoi, ez egin kasürik,/ Bestelan eztükezu ni baizik galdürik.*

Guk lantto honetan eskaintzen dugun ahapaldi berrian ez legoke potorik. Ez litzateke “galdürik” bi aldiz errepikatuko. Etxahunen obran agertzen den ideia berriro dator hemen “ni bezain tristerik ez dago munduan”.

Laugarren ahapaldiak ez du zerikusi handirik Hts 14 ahapaldiarekin. Zentzuaren aldetik bietan agertzen da zaldia. Eta zaldiak bere bizkarrean pertsonaia hartu eta urrundu egingo du zoritxarraren gertalekutik. Gure kasuan, ordea, zaldi xuria ama-umeak bere gainean hartu eta urrutira eramateko da. Ahapaldi hau “Xarmagarria zira eder eta gazte” kantan ikusten dugu.

9. Azken hitz edo ondorioa

Hemeretzigarren mendeko kantu-libururik famatunetarikoa batean, 1870ko *Chants populaires du Pays Basque* lanean, kantu batek bere eten puntuekin sekretu edo enigma bat eskaintzen zuen. Nik behintzat behin baino gehiagotan galdetu diot neure buruari zein ote zen alderdi ezkutatua, zein ote zen ilargiaren alde iluna eta estaria... Salaberriren beraren paperetatik bi ahapaldi berri eta beste lauren aldaerak ekarri ditugu hona. Gure asmo nagusia testuak fidel eskaintzea izan da, gerora era bateko edo besteko ikerketa-saio eta lanak egin ahal izateko.

Jabier Kalzakorta